

Ostirala
2020ko uztailearen 31
XI. urtea
456. zenbakia
PREZIOA: 0,50 €

www.iparraldeko-hitza.eus
ieh@hitza.eus

2 Turismoa Usaian baino aise
turista gehiago dabil mendian
uda honetan, eta enegruak sortu ditu

3 Laborantza Mahastizain
langile izateko formakuntza sail
berria irekiko dute urrian, Izuran

IPAR EUSKAL HERRIKO HITZA



**Garaziko
jentil
harrietan**

Ahatsa, Behorlegi eta Mendibeko Neolitoko hilobietan, azken urteetan egin miaketek ezagutza berriak ekarri dizkiete arkeologoei • Armiagako trikuharri ondoan informazio taula bat jarri dute • 4-5



Ipar Euskal Herriko Hitzak udako oporrak hartuko ditu, eta agorriean ez da gehiago argitaratuko. Ondoko zenbakia irailaren 4an publikatuko da, eta, ordutik aitzina, astero izanen da eskuragarri BERRIAREKIN batean, kioskoan eta etxean harpidetuak direnzentzat.



Autokarabanak mendian ibiltzea ez da berria, baina aurten arazo bilakatzen dira Iratiko soroan bereziki. J.E.

Kostaldekoko saturazioak eraginik eta konfinamenduak ere horretara bultzaturik, sasoi hastapen arras jendetsua dute mendiko eskualdeetan; onura eta kalteekin.

Ezohiko turismoa mendietan

Joanes Etxebarria

Datuak sasoi finitzean jakinen dira, baina orokorra da Zuberoa eta Baxenabarreko mendi eskualdeetan aurtengo udako turismoa ezohikoa den ustea. Hasteko, Kakueta, Holzarte, Iratin edo Ahüzkin, agorriaren 15ean sasoi bete-betean den jendetza badela sumatzen da. Artzainen eta turismoaren profesional bazuentzat, biharko turismoaz gogoetatzeko beharra ekartzen du.

Sasoi hastapen beroa izan da. Konfinamendutik atera berritan, mendia erakargarri egin zaie orain arte joaten ez zirenei ere; mugak berriz itxiak izateko mehatxuak ere lagundu du bazterretako jende anitzek hau hori egiteko. Atharratzeko turismo bulegoan bisitari gutiago baina dei parrasta ukaiten ari dira, Argitxu Ourthiaguerean erranetan: «Anitzek deitzen gaituzte kostaldetik edo Pauetik ere», Kakueta, Holzarte edo Iratiaren berri galdegiteko bereziki. Ibilaldietako bizkar zakueta usu gordetzen den IGN mapak, seinale bat da, sekula bai-

no gehiago saldu dira aurten. Artzainak ere fenomenoaren lekuko dira. Ezterenzubi zeharkatzen duen GR-10 xendretan, oinezko gutiago «baina autoz eta motoz, motoz bereziki, leherra bada», Jean Michel Maitia laborariaren arabera. Ardi batzuk Ahüzkin eta besteak Larrainen dituen Helene Rolland artzainak bi lekuetan bisitari desberdinak ikusten ditu: «Larraine goi mendia da, mendizaleentzat da, aldiz Ahüzki ongi da mendia deskubritzeko».

Hori da denen erranetik ezagarririk aipagarriena, publiko desberdina hasi dela mendira hurbiltzen. Iratik jadanik bazuen arrakasta bidetik hara heltzea aisa baita, baina aurtengo sasoi hastapena berezia dela ziurtatzen du Zuberoako parteko etxolekako zuzendariak, Josie Arrosagaraiak: «Publiko berri batek ez ditu mendiaren kodeak ezagutzen, kabalekiko eta. Normalki, gure bezeroek badakite txakurra loturik atxiki behar dutela, adibidez», eta gehitu du bisitari mota berri horrentzat abantzu «zoo bat» dela ingurunea. Behin baino gehiagotan gertatu da, aurten, artzainak zailtasunak ukaite ardi

saldoa gidatzeko pertsona batzuek tratatzen zituztelako.

Iratin ardi gasna egiten duen Estebe Ouretek badaki mendi eskualde horretara bide onak helitzen direnez usaian ere bisitari anitz izaten dela, «baina aurten



Joan behar ginen hurrei esplikatzera mendia nola martxan den. Baina soilik artzainen esku da hezkuntza lan hori?»

Helene Rolland
Artzaina

«Entseatzan gara esplikatzan artzainaren inportantzia, tokiko praktikak zeintzuk diren, baina zaila da»

Argitxu Ourthiague
Zuberoako turismo bulegoko langilea

«Turismoa garapen tresna interesgarria da kudeatua bada, baina kudeatu behar da! Ez da ireki behar irekitzeko»

Josie Arrosagarai
Iratiko etxolekako zuzendaria

usaian baino gehiago eta gehiago ikusten dugu jendeak gaua pasatzen; kanpatzen edo autoetan lo egiten, autokarabanetan». Ez ditu denak zaku berean sartzen, baina aurten begi bistakoa zaio errespetu arazo bat badela «Anitz ez baitira jiten [artzainekin] mintzatzera ere; etxean dira, eta fini! Ez dute galdegiten egoten ahal direnez lo egitera. Arazoak badira xakurrekin, libro uzten dituzte eta debekatua da, badakite baina ez dute errespetatzen. Makurrak badira, eta hori ez dugu onartzen ahal».

Bere ofizioaren egunerokoan jenatua bada ere, Ouretek argi ditu polizia egitearen zailtasunak, Garaziko Mendi Sindikatuko ki-dea baita: «Ahal guti da. Legez ezartzen ahal da zaindari bat isunak ezartzeko, baina giro txarra ekartzen ahal du: hemengo anitz ere ibiltzen da mendian eta denen beharra badugu». Iratin, bederen, mendian nolako jarrera ukan argitzen duen seinaletika ezarri dute (txakurra loturik atxikitzea galdegiteko adibidez). Helene Rollandek horren beharra ikusten du Ahüzkin ere, «esplikatzeko ezin dela korrika egin kabalen er-

dian, autoa ez dela nonahi uzten, zikinak ez direla nonahi botatzuten». Artzainen ahotan entzuten diren arrangurak oinarritzko errespetuari lotuak dira.

Oreka baten xerka

Bisitari kopurua goiti joateak, du-darik gabe, onura ekonomiak ekartzen ditu gune batzuetan: Iratiko etxolekako harrera gunean lekuko mozkinen saltegi bat estreinatuta zuten duela bi urte, eta «arrakasta gaitza badu», Arrosagaraiak ikusten dituen bezeroekin. Bortuko gasna salmenten berri ukan gabe, kontrakoaren sentazioa du Maitiak: «Pertsonalki ikusten dudana da mendiaren kontsumitza heldu direla jende gehienak». Iritzi berekoa da Ourthiague ere: «Nik ere hala sentitzen dut. Entseatzan gara esplikatzan artzainaren inportantzia mendian, tokiko praktikak zeintzuk diren, baina zaila da».

Hezkuntza lan horretan hasiak ziren hainbat artzain elkarte, hain justu, konfinamendua aitzin. El-karte horietako baten kide da Rolland, eta dudak ditu horrekin aski denez: «Eskoletara joan behar ginen hurrei esplikatzeko mendia nola martxan den. Baina soilik artzainen esku da hezkuntza lan hori? Ez naiz ziur».

Aurtengo jendetza ezohikoa dela denek onartzen badute, Maitiak dio «dudarik gabe» lan bat badela egiteko, «instituzioek egin behar» dutena, turismoaren oreka bat xerkatzeko. Hain zuzen, horretan dabilta, adibidez, Iratiko oihana kudeatzen duten lau mendi sindikatuak, Arrosagaraiaren erranetan: «Turismoa garapen tresna interesgarria da kudeatua bada, baina kudeatu behar da! Ez da zernahi egin behar, ez da ireki behar irekitzeko». Holzarten dabilen jende kopuruak hautesiak beldurtzen dituela ziurtatzen du: «Ez da uzten ahal den bezala, ez da uzten ahal ezbehar bat gertatu arte», baina lanketa «sakona» egiteko denbora beharko dela gehitzen du.

Deliberoko hartzeko orduan, bestalde, hautetsiak baizik ez dira jartzen mahai inguruan orainoz. Estebe Ouret bezala Garaziko Mendi Sindikatuan, hautetsi anitz laborari eta artzainak badira ere, beste batzuk gogoetatik baztertuak sentitzen dira. «Pixka bat gure gainetik hartuak dira erabakia», Jean Michel Maitiaren erranetan. Helene Rollandek ere berdin sentitzen du, eta galde-tzen: «Behar genuke herriko kontseilura joan jakiteko zer pasatzen den?».

Mahastizain langile izateko frogagiria

Mahastizain-langile kualifikazioa ukaiteko saila sortu dute Izuran • Urriari hasiko dute formakuntza lehenbiziko hamabi ikaslekin

Itxiki Etxeleku Baiona

Mahastizaintzan etxalde langile kualifikatua bilakatzeko formakuntza berria abiatuko dute urriari Izuran. Zortzi hilabeteko formakuntza bururatzean, Lanbide Kualifikaziorako Agiria erdietsiko dute ikasleek: Laborantza Ministerioko hirugarren mailako diplomaren heinekoa. Gehenez hamabi leku ziren formakuntzarako, eta hamabi lagunek emana dute jada izena.

Irulegiko arnoen jatorri deiturako mahastizainek eta BLE Biharko Lurraren Elkartek, Montardoneko laborantza eskolarekin zutik eman formakuntza berria da. Montardongo ikastetxeak (Biarno) Izuran dagoeneko duen ardi saileko formakuntzari gehituko zaio, beraz, mahastizaintzakoa. 900 oren inguru irauten duen formakuntza da, guti edo aski, erdia, Ipar Euskal Herriko mahastizainen etxaldeetan egiten dena. Klaseko aldietan ere ikasleak mahastietan ibiliko dira ikasi teoriaren probatzeko aihenen artean.

Claire Fortage, Montardongo laborantza eskolan mahastizaintzako irakaslea da, eta Izurako sail berri horren koordinatzailea. Zer diploma mota den esplikatu du: «Langile berezitu autonomoa bilakatzeko da formakuntza egin duena, bai laborantza tresnerien gidatzeko, bai mahasti baten arta lan guzien eramateko».

Ez da zerutik erori formakuntza. Behar eta galde batetik heldu da. «Tokian-tokian badu bi urte badela galde bat. Formakuntza molde ona atzeman arte aritu gara, Irulegiko mahastizainen beharretatik eginahala hurbil izateko gisan». Erran behar da Montardongo laborantza eskola ez dela bakarrik ari izan ikasketa honen pikoan ematen, BLEk lagundu baitu. Gehiago dena, ikastaro batzuk BLEk berak emanen dizkie ikasleei. «Haiek dira gehien dakitenak tratamendu fitosanita-

rio mailan». Gainerako formatzaileak Montardon eta Jurançon aldetik etorriko dira, baita Gersetik ere enologia sailarentzat. «Denetarat, irakasleetan, bospasei izanen gara». Horiek, eta nolaz ez, lekuan lekuko mahastizainak berak. «Eginahala eginen dugu eremuko mahastizainek parte har dezaten zuzenki formakuntzan». Partikulariki, Irulegiko mahastietako lanei egokitu tresneriaren erabiltzen erakusteko.

Ongi dabilen saila

Axeria, bordelesa, izkiriota, hots, tokiko mahats motak, mahastien lantzeko, gerizatze, iraunarazteko moldeak aztertuko dituzte ikastaroa jarraituko dutenek. Irulegiko mahastien eremuko lurra ere ezagutuko dute: «Gaitasun sail oso bat bada lur azpien azterketari buruz. Helburua baita jende berezitua izatea Irulegiko eremuan; beraz, anpelegrafia, mahats motak, lur azpia, Irulegiko eremuaren arabera izanen dira». Eta ez da guti, Fortagek dioenez, lur azpi guziz orotarikoa baita Irulegiko arnoaren izendapenaren lurraldean: «Biziki zabal da; aski da ikustea Irulegiko eremuko kartografia, denetarik bada lurretan».

Formakuntza segituko dutenak, dena den, Irulegiko arnoaren lurraldean ari edo ariko direnak dira. Galdea mahastizain independenteetatik, Irulegi jatorri deitura gerizatuko sindikatutik eta Baigorriko sototik jin da, baita horretan formatu nahi luketen langileen partetik ere. «Ikasle-gaietan bada orotarik: langabeak, ofizioz aldatu nahi dutenak eta jadanik mahastizain baten etxean langile direnak. Denen partetik heldu da galdea; suertez arrunt elkarrekin ari dira sotoa eta sindikatuko beste mahastizainak, goxo da. Horri esker, denei ongi zaion formakuntza ibilbidea pikoan eman dugu».

Hastapenean, langile-mahastizainen formatzea da helburua,



Besteak beste, mahastietako tresneriaren erabiltzen ikasiko dute ikasleek. JOANES ETXEBARRIA

baina beste profil mota bat agertu da interesaturik formakuntzaren egiteko etorkizun hurbilean: jada laborantza bat duen hazlearena. «Ardi hazle batzuek dibertsifikatzeko beharra bazuten, eta lurra baitzuztzen malda hego alderat buruz ontsa kokaturik, mahastizaintzan hasi zitezkeela ikusi zuten».

Lanbide ikastaro anitzen gisan, ikaslea diruz lagundua izan daiteke formakuntzaren pagatzeko. «Diruztatzea Pole Emploiren bidez egin daiteke», adierazi du koordinatzaileak. Laurehun oren hartu ditzake abiatze horretan langabeen laguntza zerbitzuak. «Gainerakoarentzat, enplegatzaileekin ongi pasatzen bada saiakera epean, profesionalizazio kontratuak eginen litzaizkieke; erran nahi du enplegatzaileak duela pagatzen ikaslea etxaldeko ikastaro denboran».

Formakuntza bururatzean, ikasgai guziz berria duten ikasleek azterketak eginen dituzte, lan egoeran. Gainditzen badituzte, kualifikazioa eskuratuko dute. Bederen hiru urtez mahastizaintzan lan egin dutenek, berriz, lortu esperientziaren egiaztatzea eskuratuko dute.

Izurako formakuntza berria urriaren 26an hasiko dute lehen belaunaldikoek. Segurretik ariko dira, bederatziko mahastizainek hitza emana baitute ondotik enplegatzeko.

MASKARA BAKOITZAREN
GIBELEAN SUPER-HERRITAR
EKO
BAT KUKUTZEN DA

Elgarrekin,

BEREIX DEZAGUN !



Communauté
d'AGGLOMÉRATION
PAYS BASQUE
EUSKAL
HIRIGUNE
Elkargoa

bita
garbi



Armiagako trikuharri inguruko miaketak, duela bi urte. Irailean berriz hasiko dituzte. PABLO MARTIKORENA

Behorlegiko Armiagako trikuharriko miaketak irailean hasiko dituzte berriz Okzitaniako Tolosako Unibertsitateari lotu arkeologoek. Azken lau urteetan egin ikerketen bidez, Hergaraiko Neolitoko megalitoez doi bat gehiago badakite. Informazio taula ezarria dute, funtsean, tokian berean.

Harri-lurrek Neolitoaz diotena

Iñaki Etxeleku Donazaharre

par Euskal Herriko Unibertsitate Herrikoiak jakinarazi du hiru ikerketa arkeologiko lantzen segituko zuela aurtten.

Mariane Deschamps ikerlari eta Lisboako Unibertsitateko irakasleak Ozaze-Züharako Hergaño mendiko Gatzarria leizean daramana –neanderthalen eta *Homo sapiens*-en garaiaz–; Pablo Martikorenak Garazi Hergaraiko Neolitoko trikuharri eta harrespilaz daramana; eta Bixente Hirigaraik Erdi Aroaz darama-

na. Martikorenak irailean hasiko ditu berriz miaketak Behorlegiko Armiagako trikuharri edo jentil harrian. Azken urte hauetan, inguruko trikuharri ezagunetan ezagutza berriak egin dituzte, teknika berriak direla medio.

Bost gunek dira 2016tik berriz miatu dituztenak: Gaztenia (Mendibe), Armiaga (Behorlegi), Buluntza (Ahatsa), Xuberaxainharri (Mendibe), eta azkenetan atzemana izan den Burgizta (Ahatsa). Duela lau urte, Gaztenia-ko trikuharri inguruan galdekatu zituen HITZAK Martikorena eta Emmanuel Mens arkeologo-

ak. Geroztik, besteetan ibili dira; ikerketak eta azterketak egin, eta baieztatu dute duela lau urte sumatzen zutena: Hergaraiko trikuharriak ipar eta ekialdeanago diren trikuharriekin lotu daitezkeela. «Arkitektura orokorraren aldetik lotu ditugu *caussenard* deitu trikuharriei. Aveyrongo *caussegain* horietaraino badira», esplikatu du Martikorenak. Xehetasun batzuetan oinarritu dira ondorio horren frogatzeko, hala nola trikuharriko saihetseko bi harriak ez direla bertikaliki ezarriak, baizik eta horizontalki. «Gehienetan, sarguneko atea gibela baino apalagoa da. Trikuharri barnera sartzen zarelarik, iduritzen zaizu paretak goiti ari direla».

Beste ezaugarri komun bat gibebeko harria da. Hori, haatik, zutitik plantatua da, eta giza itxura du: «Oheburua deitzen dugu harri hori, eta aldikal itxura antro-

pomorfoa dauka. Gaztenian bizi-ki argi da: gaina hertsia da –burua irudikatzen du–; gero zabaltzen da sorbaldetan, eta gerriaren heinean pikatze markak ageri zaizkio gerri horren marrazteko eginak. Armiagakoan ere hala da». Martikorenak dioenez, Neolitoko gizakien ezaugarri adierazgarriak dira oheburuko harri horiek. «Jada halako jende itxura zuen harri bat bilatzen zuten. Gutiago hunki eta naturalago, haiek nahiago».

Trikuharria estaltzen duen gaineko harri gotorra da hirugarren ezaugarria. Beste lurraldeetan miatu hilobien gisan, harri hori azpikoak baino zabalagoa da, hegatzak egiteraino; ez zuten haien gainean pausatzen baizik eta egitura guzira eraikitzeko egin zuten tumuluaren gainerat ekartzten. Harrien jatorriek ere gauza frantseko kontatzen dute. «Saihetseko bi harriak zuriak dira. Oheburu-


koa eta estalgikoa, biak, hareharri gorriak dira. Kolore joko bat bada, beraz. Bazterrekoak 200-300 metro urrunagoko arroka azalera-mendu batekoak dira. Gibel eta gaineko gorriak, haatik, Mokorrera menditik ekarriak dira. Gutienez, kilometro batez mugituak izan dira». Arkeologoak ohartu dira, gainera, harri horiek nahitara pikatuak eta kenduak izan direla arrotatik.

Gaztenian egin ikerketek beste aurkikuntza bat ekarri die, eta inguruko garai bereko beste hoberen artean bereizi egiten dute Mendibekoa. «Gaztenia, hain segur, ibarreko monumentu enblematikoa da. Menturaz nagusia ere, baitaiteke hierarkia bat izatea monumentu guziren artean». Horren erakuslea da trikuharria egina den muinotxo bera. «Muino hori ez da naturala. Gizakiak egina da». Bi metro gora eta 16-20 metro luzeko





Elektrodoak erabiltzen dituzte egitura gogorren lurpean bilatzeko. P.M.



Armiaga eta Gazteniako trikuharrien harrizko egitura osoa. P.M.

muntadura litzateke. Geologia ikerketa bat bidean ezarri dute jakiteko azpian bildu lurra nola-koak diren eta nongoak. Martikorenak esplikatu du nola egin zuten: «Azterketaren erdia baizik ez da egina; beraz, baieztatu beharko da, baina iduri luke Neolitoko gizakiek eremu bat ordokitu zutela, leundu. Gaietik, harri xehez egin geruza bat. Eta horren gainetik, kupula bat eraiki zuketuzten buztin bolaz egina». Buztinaren gainetik, kupula bat eraiki zuketuzten buztin bolaz egina». Buztinaren gainetik, kupula bat eraiki zuketuzten buztin bolaz egina». Buztinaren gainetik, kupula bat eraiki zuketuzten buztin bolaz egina».

Armiagakoak dioena

Xuberaxain-harriko trikuharria Mendiben da. Ez dute gauza handirik atzeman ahal izan, aski andeatua baita gunea, besteak beste hazkuntza lekua delako. Haatik, Armiagakoan bai.

Gazteniaren iduriko egitura kausitu dute. Leuntze lana azpian; harri xehe geruzak, kupula inguruan. Oheburua guziz berezia du: «Saihetseko harriak baino aise barnago sartua da, eta trikuharrian ezartzen zuten lehenbiziko laua zen. Gaude ez ote zen menhir bat izan trikuharria baino lehen».

Armiagako miaketek besterik salatu die arkeologoei, aitzineko ikerlarien usteak gezurtatzeraino. «Trikuharria ez da –Sarako lezeetan jendeari erakusten dioten bezala– lurrezko borobil batean emana; Armiagako hobi-ko ganbera, harrizko eraikin lauki bateko atea da [ikus irudia]. Harrizko murru bat bada eraikirik. Monumentuaren inguru guziaz egiten du». Ez litzateke, beraz, hilobi arrunt bat, baizik eta ehunka urtez berriz erabilia izateko hobia. «Erabili ondoren hets zezaketen. Edo desegin zitezkeen ekaiez egin ate batzuekin –zura, konparazione–, edo harrizko pareta bat desegin eta berriz muntza zitekeena» hil berri bat hobiratzen zen aldi oro. Armiagan ez dute frogarik hala zenik,

baina Buluntzako trikuharrian agerian ezarri dute harrizko ate horren oinarria.

Cairn erratan zaie harrizko lauki egitura horiei, eta Ipar Euskal Herriko kanpo atzematzen dira halakoak Aveyron arte. «Armiagan, gainera, zeramika bat atzeman dugu, Neolitoko erdi arokoa –3.600-3.800 K.a.–, eta ontzi mota berberak kausitu dira Tolosa aldean [Okzitania]».

Martikorenak hastapenetik frogatu nahi duen tesiarekin bat egiten dute elementu hauek: hilobi monumentuen egiteko molde bera izanez, kulturalki ere hurbilak zirela mendiez honaindiko leinuak Okzitaniako Tolosa aldekoekin eta Aveyron alderaino zihoazekin. Haatik, Bilbo inguruan edo Iruñeko behereetan atzeman trikuharriak ezberdinak direla. «Orbaizetan, Izpegi hara indian eta Irun arte trikuharriek elkarren eite dute. Beraz, pentsa daiteke uren muga bat zitekeela, Mediterraneoarako eta Atlantikorako isurialdeen artekoa». Ez du kentzen bi isurialde-etako gizakien arteko harremanak bazirela. «Neolitoko garaiko Ebro ibarreko suharri bat atzema izan da Donazaharren. Objektu truke bat bazen, baina ez da eremu kultural bera. Objektu trukea egiten zitekeen, hain segur alde bakoitzekoak bortura joaten zirelarik ardiekien».

Mendiko laborantza

Beste ikerketa bat abiatuko dute, hain zuzen garai haietako laborantza eta biziguneen aztertzeko ondoko bi urteetan. Ikusi dute trikuharrien eremuak ez zirela biziguneak, baina hilen ohartzeko monumentuak. Neolitoko bizigune batzuk atzeman dituzte, haatik, beherago.

Laborariak lur iraultze lanetan ari direlarik, arkeologoak ibiltzen dira itzulua izan den lurra eremua miazkatzen ados diren laborarien

alorretan. Artetan, altxor arkeologikoak kausitzen dituzte. «Biziguneak bazitezkeelako seinaleak atzeman ditugu Duzunaritzten, Donazaharren eta abar. Orain, jakin nahi genuke zergatik trikuharriak leku horietan egiten zituzten. Nola egiten zuten hara joateko? Bizigune herexarik badenetz trikuharrietarik hurbil?».

Arkeologoek badakite mendiguneetan laborantza egiten zela Neolitokoan. Buluntzako trikuharrian den pentzearen jabeak erran die ezen, mekanizazioa jin baino lehen, haren aitak ogia egiten zuela leku horretan. «Gogotarako bideak ireki nahi ditugu zaharren galdekatzera joanez, edo mekanizazio aitzineko urteak aipu dituzten dokumentuak bilatz». Jakiteko non zer ekoin zuten eta nola egiten zen mugitzeko. «Ogia egiten zelarik goratasun horietan, jausten ote ziren



Gaztenia, hain segur, ibarreko monumentu enblematikoa da. Menturaz nagusia ere. Baitaiteke hierarkia bat izatea»

«Edo Euskal Kultur Erakundeak berreskuratzen du gaia, edo egitura edo erakunde bat sortzen dugu»

Pablo Martikorena
Arkeologoa

egun guziz ibarrerat ala bizpahiru egunez han egoten? Baxera zerbaitekin joaten ote ziren? Familian? Iratiko leize batzuetan atzeman baitira gizon, emazte eta haur gorpuak. Arkeologo anitz gara uste dugunak Neolitoko eta Brontze Aroko artzaintzan edo mendiko laborantzan, familia osoak igaiten zirela bortura».

Erakunde bat amets

Momentuan, Garazi Hergaraiko trikuharrietan egin ikerketak Okzitaniako Tolosako unibertsitatearen peko eta hark utzi tresneriarekin egin dituzte. Arkeologia saila baduenez, ahal handiak baditu dagokion laborategiarekin.

Pablo Martikorena, berriz, miaketa proiektuak baizik ez da aitzinatu orain arte. Momentuan langabezia da, eta amestuko luke Ipar Euskal Herriko arkeologia sail bat garatzen balitz; ondare material horrentzat ahalak ezartzen balira, lanpostuak sortuz, ikerketak diruztatuz, gero balio emateko, ezagutarazteko bai tokiko eskolei, bai turistei. Euskal Kultur Erakundeak eta Euskal Herriko Erakunde Publikoak gutizia pizten diote Baigorriko Unibertsitate Herrikoiko animatzaileari. Erreprotxua egin dio EKEn ondare materiala –monumentu arkeologikoena–, bazter utzia baitu. Gogoko luke talde bat diruztatua balitz Ipar Euskal Herrikoan lan horien eramateko. «Edo Euskal Kultur Erakundeak berreskuratzen du gaia, eta lauzpabost jende enplegatzen ditu ondare materialean aritzeko, edo egitura edo erakunde bat sortzen dugu».

Beti ere, Bordeleko eta Tolosako unibertsitateekin loturan ikusten du bere burua Martikorenak –hala baitira gaur egun Mariane Deschamps eta biak–. Diruztatze bidean bilatzeko molde bat atzemateko gisan. «Sostengatzen ahal lirateke ikerlari gazteak, eta, ondotik, balioztatzea, komunikazioa. Euskal Elkargoaren zerbitzu bat izan behar ote da, edo aparteko erakunde bat? Ez dakit».

Turismoaren argudioa erabiltzen du hautetsien baitan interes baten pizteko. Berriki, Armiagako trikuharri ondoan adierazpen taula bat ezarria dute egin diren aurkikuntzen bisitariei esplikatzeko.

Euskararen
erakunde
publikoa

Office public de
la langue basque

EEPK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

MARRAZKIRITZIA

Fototxotx



Ibai Amazonen kontseiluak (II)

Turismo alternatiboa garatzeko

Turismo masifikaziotik urruntzea proposatzen du Ibai Amazonek, bere asmakizun berriarekin : ordulari konektatua.



Ordulari moderno honek gps, argia, mikro uhinak eta beste hamaika aplikazio ditu.

Aktibitate kulturalen agenda alternatiboa. Haureri oiloen "transformazio" prozesuaren ikusteko parada emanez adibidez.



Rugby terreno batetik hurbiltzean Michel Etcheverryren hologramak lekuari buruzko anekdota pertsonalak kondatuko ditu.

Ordularian den aplikazio batek kaka egiteko leku hobereenen zerrenda proposatzen du.

Ordulariarekin batera VR kaskoa eskeinia da. Etxeko kanapetik meza segitzen ahalko da, hartza agurtu, pastorala jarraiki edo Larruneko treinean sartu lekuan berean bazina bezala.

IDAZLEEN BILTZARRA

37

Irailaren 06n igandez

120

idazle & argitaletxe

Salmenta & izenpetzeak

www.sarako-biltzarra.eus

SARAKO



Izan berria laguna

Susta ezazu euskarazko kalitatezko kazetaritza

BERRIALagun izateko aukerak

BERRIALaguna

Aukeratu kuota:

Hilean 10 €

Urtean 100 €



BERRIALagun harpideduna*

Aukeratu harpidetza mota:

Asteartetik igandera, **hilean 37 €**

Asteartetik ostiralera, **hilean 24 €**

Ostiraletik igandera, **hilean 22 €**

Asteburukoa, **hilean 16 €**



BERRIALagun iragarlea

Aukeratu kuota:

Urtean 100 €

Urtean 150 €

Urtean 225 €

Urtean 300 €

Urtean 500 €

Urtean 1000 €



* Ordainketak: urtekoa, bi zaittan, edo lau zaittan.

Ikusi BERRIALagunen abantailak

Berria.eus/berrialaguna • 943-30 43 45 • laguna@berria.eus

berria

Informatzeak
zenbat balio duen

Joanes Etxebarria Ozaze

EHZren partez biltzar nagusia egin zuten ekain hondarrean. Joan den astean, berriz, laguntzaileen topaketak antolatu eta hats berriturik atera ziren Julen Oillarburu (Donamartiri, 1996) eta Miren Etxeberri (Arantsusi, 1997) parte hartzea ikusirik: 150 eta 200 laguntzaile artean elkartu ziren. Teoriatik praktikara jauzi egiten hasi dira, besteak beste, protokolo feministarekin.

Nola pasatu du konfinamendua EHZ festibalak?

MIREN ETXEBERRI: Elkarre guztiek bezala, segitu behar izan dugu elkartzen eta biltzarrak egiten, baina modu birtualean. Ene ustez aski zaila izan da, gauzak prestatu baikenituen eta ez baita posible izan EHZ antolatzea ekain hondarreko. Baina laguntzaileen topaketak antolatu dugu, eta horrek lagundu du laguntzaileen sarea berriz indartzen eta ondoko hilabeteetako atxikitzen sarea indartsu. Hori zen ukaiten ahal genuen beldurra: laguntzaileak ez zirenez elkartuko, sentitzea ahultze bat edo, baina topaketak pentsu dit permititu duela berriz indartzea.

JULEN OILLARBURU: Lehenik pena handia izan da 25. aldia izan behar zena ezeztatzea: urte osoan horretan aritu ginen; programazioa finkatua zen; kasik dena prest zen ontsa pasatzeko. Jakinez 50 edo 60 bat laguntzaile ari direla lanean urtero eta azken momentuan aldatzen delarik... denendako pena da. Baina jakin behar da elkarteari berez ez diola kalterik egin ez dugulako langilerik, dirua ez dugu aitzinatu... Iku-siz beste elkarre edo kulturagintzako eragileak... ontsa atera gara.

Konfinamenduak barne gogoe-taren haustura ekarri du?

M.E.: Ni pertsonalki indartu nau. Praktikara ekarriko ditugun tresnak erabiliko ditugula ikusteak ere konfiantza ematen dit, emeia anitz horretan segitzeko: teoriatik praktikara ekartzeko. Sentitu dut ere pertsona berriak agertu direla; iduri zait gazte batzuk agertu direla eta taldea indartu dela. Hala sentitzen dut eta horrek motibatzen nau ondoko hilabeteetan segitzeko, laguntzaileen taldea indartzeko.

Zergatik antolatu zenuen laguntzaileen topaketa?

J.O.: Ez ginen bildu aspalditik. Biltzar nagusi bat egin zen ekain hondarrean markatzeko EHZ pasatu behar zen egun horiek. Erabaki genuen topaketa bat antolatzeko gure artean berriz elkar tr-



JOANA IBARGARAI

«Gure eredua gehiago garatu nahi dugu arlo guztietan»

Julen Oillarburu eta Miren Etxeberri • EHZko kideak

Ekain hondarrean egitekoa zen Euskal Herria Zuzenean festibalaren 25. aldia ezeztatu, eta biltzar nagusia egin zuten. Gogoeta batzuk praktikara eraman nahian dira orain, protokolo feministarekin egin bezala.

katzeko, berriz dinamika sortzeko, eta biziki ontsa pasa da. Goizean tailerrak egin ditugu, eta, gero, protokolo feminista aipatu dugu. Helburua zen batez ere berriz ikustea fisikoki, dinamika berriz abiaraztea, eta kontent ginen alde horretatik.

Brigada Ubelak abiatu duen barne protokoloa nondik heldu da?

M.E.: Hasteko, EHZ kokatzen dugu jendarte matxista batean; beraz, horri erantzuteko, biziki inportantea zaigu erasoei erantzuteko protokolo bat martxan ematea, EHZ gune babestu bat izan dadin. Horregatik erabaki dugu martxan ezartzea eta, batez ere, laguntzaile guztiekin egitea; ez genuen nahi sentitu justu Brigada Ubelak martxan ezartzen zuela eta guk dena antolatzen ge-

nuela. Laguntzaile guztiak arduratsu sentitzea nahi genuen, eta denen artean garatuz joate.

Orain arte soilik Brigadaren gauza gisa sentitzen baitzen?

M.E.: Hori ere ez dakit. Kristoren eskasa sentitzen zen alde horretatik, ohartu baikara guk ere, Brigada Ubeleko kide gisa, ez geneki-keela nola erantzun edo zer jarra-rukan eraso baten aitzinean festibal denboran.

Nola egiten da jauzi praktikara?

M.E.: Inspiratu gara beste protokoloetatik eta gure artean aipatu dugu nola ikusten genuen. Beste urratsa zen beste kide guzietan aurkeztea eta elkarriketatzea horren inguruan. Hori egiten da simulazioen bidez ere. Laguntzaileen topaketan izan da parte bat testuingurua aipatzeko eta biga-

rren partean simulazioa deitzen duguna: ezarri jendeak egoera baten aitzinean eta ikustea nola erantzunen geniokeen. Baina argi dugu prozesu hori erabili arau garatuz joanen den zerbait dela; beraz, esperientziak lagunduko gaituzte hobetzen urtez urte.

Nolako harrera sentitu duzu? Jendea inplikatu sentitzen da?

M.E.: Bai, arrunt! Zinez biziki ongi ikusten dut, jendeen iritzi eta oharrek hori erakusten baitute. Momentuan berean ere ohartu gara izan direla eztabaida batzuk puntu batzuen inguruan, galdera batzuk, kezka batzuk... Harrituak izan gara. Eta jendea arduratsu atera da lehen saio horretatik; beste bi saio aurrekisiak ditugu zinez lanketa sakonagoa egiteko, ez justu horretan gelditzeko.

Aurten galdu dena heldu den urtean nola berreskuratu aipagai ukan duzue, edo goizegi da aipatzeko?

J.O.: EHZren norabideak pixka bat definitu ditugu, baina jakinez ere gaurko egoeraren menpe garel. Zurrumurruak dio berriz konfinatuak izan garel... Ari gara pausoz pauso. Antolatzen ari gara egitasmo bat urriko, baina hor ere ea egoerak modua ematen duen. Zaila zaigu oraino proiektatzea heldu den urteari begira, jakinez halere heldu den urtekoa 25. aldia izan dela eta nahiko dugula markatu mende laurden hori gauza berezi bat eginez.

Urrian zerbait antolatu nahi duzuela jakinarazi duzue.

J.O.: Ez dugu oraino data komunikatu nahi, baina helburua da sinpleki egun bateko ekimen bat egitea. Guretako ez da argi zer espazio ukanen dugun; zaila da aurreikustea egoera zein izan den jakin gabe.

Protokolo feminista aipaturik, bestelako gogoetarik eraman ote duzue taldearen baitan?

J.O.: Bai, bada ere gogoeta bat antolakuntzaren moduan; joan den urtean abiatu genuen eta segituko dugu. Gero badira gogoetak beste arloetan: lekuko kultur sorkuntza sustatu nahi dugu; protokolo feministaren inguruan Brigada Ubela ari da lanean, ekologiarengatik Brigada Berdea ari da... EHZk beti ukan du anbi-zioa eredu garri izatea bai kultur-eran, bai euskaran, feminismoan edo generoen arteko harremanetan, ekologian... Gogoetak arlo anitz hunkitzen ditu.

Gogoeta horiek lehendik aipatzen dira. Egiten dena barnatu behar den seinale?

J.O.: EHZren ardura talde batek hartu zuen iaz; beraz, pixka bat zerotik abiatuz. Gogoeta batzuk ez ditugu barneratu, zerotik hasi garen. Protokolo feminista izan zen iaz EHZn; aurten nahi genuke oraino gehiago garatu, gehiago landu. Arlo guztietan gehiago garatu nahi ditugu gure problematikak eta gure eredua.

EHZ festibal handia zen, eta eskala ttipiagora pasatu da. Horregatik izan da kolpea ttipiagora?

J.O.: Hori segur da, garai batean baziren hainbat permanente eta bestelako azpiegitura. Iaz egin genuen apustua EHZ manera umilean berriz hasteko, tokiko taldeekin arituz, partaideak ahal bezain hurbil ukanez eta azpiegitura mailan ahal bezain xumeki eginez. Horri esker ere, konfinamenduak ez digu hainbeste kalte egin.